



ORIOKoudala

UDAL ORDENANTZAK 2013



ORIOKoudala

IRAGARKIA

Jendaurreko arauzko epea inolako erreklamazio eta oharrik egin gabe igaro ondoren, finko eta behin betikotzat jotzen da Udalbatzarrak 2012ko urriaren 30ean egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakia, 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren Ordenantza Fiskalak eta eranskinak aldatzeari lehen onarpena ematen diona; egindako aldaketak ondoko hauek dira:

1. Udal zergak:

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATUKO DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

ERANSKINA

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga-tasa honako hau da:

- Industri edo hirugarren zonetan kokatuta dauden hiri-ondasunentzat : ‰ 3,45.
- Gainerako ondasun higiezinentzat: ‰ 1,80.

Famili ugari direnei honako hobaria aplikatuko zaie, gehieneko 180.000 eurotako balore katastraleko mugarekin:

3 seme-alaba dituzten familiei: ‰52,50

4 seme-alaba dituzten familiei: ‰63

5 seme-alaba edo gehiago dituzten familiei: ‰73,50

Landalur Ogasun higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa % 1,10koa da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusien uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak hainbat aldaketa egin zituen tokiko zergatan; horietako bat izan zen Ondasun Higiezinaren Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 14. artikulua 5. atalari dagokiona. Aldaketa horiek ikusita, honako hau proposatzen da: etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinetan —subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza ez denean edota hirugarrenen ohiko etxebizitza ez denean (errentan emana dagoelako edo erabilera-lagapenean dagoelako)—, Udalak %100eko erreklama aplikatzea zergaren



ORIOKoudala

kuota likidoan. Errekargu hori zergaren subjektu pasiboari exijituko zaie eta zergarekin batera sortuko da; likidatu ere, urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

%100eko errekaru hori aplikatzeko, bizitokirako erabileradun higieztintzat honako hau hartuko da: katastroan etxebizitza erabileradun gisa jasota dagoen lokala. Etxebizitzaren eranskinak ere sartuko dira, erregistroan finka bakar gisa ageri badira. Eragin horietarako, bizitokirako erabilera daukan higieztin bat ohiko etxebizitza dela kontsideratuko da, baldin eta higieztin hori, zerga sortzen den datan, udal erroldan okupatzaileen ohiko etxebizitza gisa jasota badago.

Era berean, kontsideratuko da bizitokirako erabilera daukan ondasun higieztin bat ez dela subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, baldin eta, zerga sortzeko datan, udal erroldan ez badago inor bertan erroldatuta.

UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOAREN GAINEKO ZERGAREN EXAKZIORAKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

ERANSKINA

Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: 1,88.

Indarrean dauden eta gaiari dagozkion foru-arauetan ezarritako hobariak aplikatuko dira.

HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

ERANSKINA

I. Portzentaia laukia

Aldia	Urteko portzentaia
a) 5 urte artekoa	% 3,4
b) 10 urte artekoa	% 3,1
c) 15 urte artekoa	% 3,0
d) 20 urte artekoa	% 2,9

II. Tarifa



ORIOKoudala

Karga tasa: % 10,0

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINeko ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

I IZAERA ETA ZERGAGAIA

1. Artikulua.

1. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna zergapetzen duen zuzeneko tributua da, haien mota, kategoria, potentzia, edukiera eta karga edozein direla ere, eta zirkulazio baimenean ageri den helbidea Orioko udalerrian dagoenean exijitzen da.

2. Ibilgailua zirkulatzeko gai izango da bidezko erregistro publikoetan matrikulatua izan denean eta haietan oraindik baja emanda ez dagoenean. Aldi baterako baimena dutenak eta turismo matrikula daramatenak ere zirkulatzeko gai izango dira zerga honen ondorioetarako.

Ondoko hauek ez daude zerga honi lotuta:

a) Aspaldiko modeloak izateagatik erregistroetan baja emanda egon arren, kasu berezietan zirkulatzeko baimendu daitezkeenak haientzat antolatzen diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketak direla-eta.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak, hauen karga erabilgarria 750 kilogramotik gorakoa ez denean.

II SALBUESPENAK

2. artikulua.

1. Ondoko hauek daude Zergatik salbuetsita:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak, bulego kontsularrenak, eta atzerriko agente diplomatiko eta kreditatuta dauden karrerako funtzionario kontsularrenak, kanpoaldetik identifikatuta badaude eta beren mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada.



ORIOKoudala

Baita ere, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta beren funtzionario edo kideenak, hauek estatutu diplomatikoa dutenean.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Osasun laguntza emateko edo zauritu zein gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren anbulantziak eta gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. Eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean. Hau da, 350 kg-tik gorako tararik ez duten ibilgailuak, beren eraikuntzagatik toki lauan 45 km. orduko abiadura gainditu ezin dutenean eta arazo edo ezintasun fisikoren bat duten pertsonak erabiltzeko bereziki proiektatu eta eraiki direnean (eta ez bakarrik egokitu).

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboek.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a') Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65koa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago eman zaizkienean.

b') Minusbaliotasun maila 100eko 65koa edo handiagoa duten pertsonak. Aurreko a') eta b') letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gupil aulkia eramateko egokituta badago.

Salbuetsita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65koa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena.

f) Udalaren emakida administratibo bidez herri garraio zerbitzuari atxikita dauden autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, horien plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik



ORIOKoudala

gorakoa denean.

g) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makineria, Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaz hornituta daudenean.

2. 2.1. artikuluko e) eta g) paragrafoek aipatu salbuespenak lortzeko, ibilgailuaren titularrek, Udal honetako erroldan inskribatuan egoteaz gain, eskaera egin beharko dute, eta eskaeran, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia adierazi beharko dituzte. Gainera, alegatutakoa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Salbuespenari buruzko erabakia jasotzen duen jakinarazpenak egiaztigiri balioa izango du.

3. Aurreko ataleko ondorioetarako, interesatuek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskaerarekin batera:

a) Minusbaliotasuna duten pertsonak gidatutako ibilgailuak:

- NANaren fotokopia.
- Organo eskudunak emandako minusbaliotasun-ziurtagiria.
- Gidatzeko Baimenaren fotokopia (aurrealdea eta atzealdea).
- Zirkulazio Baimenaren fotokopia, minusbaliotasuna duen pertsonaren izenean.
- Ibilgailuaren Fitxa Teknikoaren fotokopia.
- Ohiko gidaria azaltzen den ibilgailuaren aseguru-polizaren fotokopia.
- Ibilgailua berak bakarrik erabiltzen duela dioen zinpeko aitorpena.

Ibilgailuaren titularra den pertsona minusbaliatua bakarrik erabiltzeko ez dela ulertuko da, ibilgailuaren aseguru-polizan ibilgailuaren titular den pertsona minusbaliatuaz gain beste pertsona bat azaltzen denean ohiko gidari, baimendun edo noizean behingo gidari moduan.

b) Minusbaliotasuna duten pertsonak garraiatzeko ibilgailuak:

- Minusbaliotasuna duen pertsonaren eta ibilgailuaren ohiko gidariaren NANaren fotokopiak.
- Organo eskudunak emandako minusbaliotasuna-ziurtagiria.
- Zirkulazio Baimenaren fotokopia, minusbaliotasuna duen pertsonaren izenean.
- Ohiko gidari gisa azaltzen den ibilgailuaren aseguru-polizaren fotokopia.
- Ibilgailuen Fitxa Teknikoaren fotokopia.



ORIOKoudala

- Ibilgailua salbuespenaren onuraduna garraiatzeko bakarrik erabiltzen dela dioen zinpeko aitorpena.

Ibilgailuaren titularra den pertsona minusbaliatua garraiatzeko bakarrik erabiltzeko dela ulertuko da minusbaliotasuna kalifikatzeko ebazpenean, “*Garraio publikoa erabiltzea galarazten dioten mugikortasun zailtasunak zehazteko baremoa*” atalean, A, B edo C letra azaltzen denean, edota 7ko puntuazio edo hortik gorakoa lortzen denean.

c) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta nekazaritzako makinaria.

- Zirkulazio baimenaren fotokopia.

- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen Ziurtagiriaren fotokopia.

- Nekazaritzako makinariaren Inskripzio Txartelaren fotokopia. Edo bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazarita eta Ingurumen Departamentuko Nekazaritzako Makinariaren Erregistro Ofizialean Alta eman izanaren ziurtagiria, ibilgailuaren titularraren izenean egina nahitaez.

Salbuespen hauek eragina izateko epea, eskaria egin eta hurrengo urtean hasiko da eta aurreko urteetakoa salbuespenak ezin izango dira eskatu. Edonola ere, matrikula berria daukaten ibilgailuentzat bi hilabeteko epea dago Trafiko Buruzagitzen alta ematen zaienetik hasita, indarrean den ekitaldirako salbuespena eskatzeko.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari utzi gabe, Udalak edozein unetan eskau ahal izango du 3. Atalean aipaturiko dokumentazioa berriro egiazta dadin, halako moduan non, baldin eskaera hori betetzen ez bada, salbuespena automatikoki geratuko baita baliogabetua.

III SUBJEKTU PASIBOAK

3. artikulua.

Honako hauek dira zerga honen subjektu pasiboak: pertsona fisiko zein juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorraren 35.3. artikuluan aipatutako entitateak, zirkulazio baimenean ibilgailua beren izenean ageri denean.

IV ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

4. artikulua.

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, salbu ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean. Horrelakoetan, zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean hasiko da, eta Trafiko Buruzagitzen behin betiko baja ematen zaion egunean amaituko da.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

V ZERGA KUOTA



ORIOKoudala

5. artikulua.

1. Eranskinean jasota dauden tarifen taulari jarraiki exijituko da zerga.

2. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean, kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da, ibilgailua eskuratu edo baja ematen zaion hilabetea barne.

Ibilgailua lapurtzeagatik Erregistro Publikoan aldi baterako baja ematen zaionean ere kuota modu berean hainbanatuko da.

3. Aurreko apartatuko tarifak aplikagarri izango dituzten ibilgailu motak zehazteko, kontuan hartuko da abenduaren 21eko 114/1999 Foru Dekretua, hain zuzen ere, ibilgailu mota desberdinen kontzeptua ezarri eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak aplikatzeko arauak finkatzen dituen. Zehazki esanda:

- 1na. Zerga honen ondorioetarako, bere tarifetan zerrendatzen diren ibilgailu mota desberdinen kontzeptua abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, II. eranskinean jasotakoa izango da.

- 2na. Furgoi edo furgonetek, ibilgailu misto moldagarriek eta turismotik eratorritakoek turismo gisa tributatuko dute beren potentzia fiskalaren arabera. Ez da horrela izango, ordea, 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraiatu dezaketenean, kamioi gisa tributatuko baitute orduan.

- 3na. Autokarabanez turismo gisa tributatuko dute beren potentzia fiskalaren arabera.

- 4na. Edozein kasutan ere, tarifa horien D) letran adierazitako traktoreen errubrika orokorrak honako hauek ere hartzen ditu: «traktokamioiak», «obra eta zerbitzuetako traktoreak» eta trakzio mekanikoko beste ibilgailuek garraiatu edo eramanak izan gabe bide publikoetatik zirkula dezaketen makina autobultzatuak.

- 5na. Hiru gurpileko ibilgailuak eta kuartizikloak motozikletatzat hartuko dira zerga honen ondorioetarako eta, beraz, beren zilindradaren arabera tributatuko dute. Kuartiziklo arinek, beren aldetik, ziklomotore gisa tributatuko dute.

- 6na. Ibilgailu artikulatuen kasuan, arrasteko potentzia daramak eta arrastean eramandako atoei eta erdiatoiei aldi berean eta bereizita tributatuko dute.

- 7na. Autopropultsatutako makinek, bide publikotik trakzio mekanikodun beste ibilgailu batek garraiatu edo arrastatu gabe ibili ahal izanez gero, traktoreen tarifa ordainduko dute.

- 8na. Zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, V. Eranskinean xedatutakoaren arabera ezarriko da.



VI KUDEAKETA ETA LIKIDAZIOA

6. artikulua.

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den helbidea bere udalerrian dagoenean, zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzea, eta orobat, zerga kudeaketan emandako egintzak berrikustea Orioko Udalaren ardura da.

Ordainketak geroratu edo zatikatzeko erabakiak borondatezko epean aurkeztutako eskaerei dagozkienean, erabaki horietan ez da berandutza interesik exijituko, baldin eta haiei dagozkien zorrak aldizkako epemuga duten eta kolektiboki jakinarazi beharrekoak diren zorrak badira eta horiek guztiak sortzapenaren ekitaldi berean osorik ordaintzen badira.

Zatiketa edo atzerapena egingo da baldin eta ordainketa helbideratzeko banku kontu zenbakia ekartzen bada.

Era berean, atzerapen edo zatitze eskaerek abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 38. eta horren ondoko artikuluek xedatutakoa bete beharko dute, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirubilketa Erregelamendua.

7. artikulua.

Matrikulazioaren eta zirkulatzeko baimenaren ondorioz zergan alta hartzen duten ibilgailuen kasuan, autolikidazio erregimenean kudeatzen da zerga, eta gainontzeko ibilgailuen kasuan, berriz, Udalak urtero egiten duen Erroldaren bidez.

Aitorpen-likidazioak Udaletxean aurki daitezkeen inprimaki normalizatuak erabiliz egingo dira. Aitorpen-likidazio horiek kalkulurako beharrezkoak diren elementuak jasoko dituzte, eta agiri hauek erantsita aurkeztuko dira: ibilgailua erosi edo aldatu izanaren frogagiriak, ezaugarri teknikoen ziurtagiria eta subjektu pasiboaren Nortasun Agiria edo Identifikazio Fiskaleko zenbakia.

Aitorpen-likidazioa behin bere esku duela, interesatuak bulego kudeatzailean edo entitate laguntzaile batean ordaindu ahal izango du zerga kuotaren zenbatekoa. Edozein kasutan ere, ibilgailua matrikulatu baino lehen, bulego kudeatzaileak egiaztatuko du ordainketa behar den zenbatekoagatik egin dela, eta aitorpen inprimakia egiaztatu izana adieraziko du.

8. artikulua.

1. Trafiko Buruzagitzari ibilgailuaren matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasun agiria edo behin betiko baja eskatzen diotenek Zerga ordaindu izana frogatu beharko dute aldez aurretik.

2. Ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari haien erreformaren berri ematen diotenean, Zerga honen eraginetarako duten sailkapena aldatzen bada betiere, eta orobat, ibilgailuak



ORIOKOUDALA

transferitu, zirkulazio baimenean ageri den helbidea aldatu edo horiei baja ematen dietenean, zergaren azken ordainagiria ordaindu izana frogatu beharko diote aurrez Trafiko Buruzagitzari. Horrek ez du eragotziko, dena den, kontzeptu horregatik sortu, likidatu, kobrantzara aurkeztu eta preskribitu ez diren zor guztien ordainketa kudeaketa eta ikuskaritza organoen bitartez exijitu ahal izatea.

Hamabost urteko edo hortik gorako antzinatasuna duten ibilgailuen behin betiko bajak ordainketa frogatzeko obligaziotik kanpo geratzen dira.

3. Trafiko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen baja edo transferentzia espedienterik izapidetuko, aurretik Zerga ordaindu izana frogatzen ez bada.

VII BETEBEHAR FORMALAK ETA ZERGA ARLOKOAK

9. artikulua.

Zerga honi lotutako ibilgailuen titularrek beharrezko tramiteak egin beharko dituzte Trafiko Buruzagitzan zirkulazio baimenean agertzen den helbidea beren ohiko egoitzakoa izan dadin.

VIII ERROLDAK

10. artikulua.

1. Matrikulatuta dauden edo zirkulatzeko gai diren ibilgailuen kasuan, zergaren urteko kuotak Udalak erabakitzen duen kobrantza aldian ordainduko dira. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ediktuak argitaratuz eta legeriak aurreikusten dituen edo egoki jotzen diren bestelako baliabideak erabiliz emango da horren berri.

2. Aurreko apartatuan araututako kasuan, urteko errolda erabiliz bilduko dira kuotak. Erroldaren aldaketak Trafikoko Erregistro Publikoaren datuetan oinarrituko dira.

IX ITZULKETAK

11. artikulua.

Ibilgailuari zerga sortu ondoren ematen bazaio behin betiko baja eta, ordurako, kuota ordainduta badago, subjektu pasiboak dagokion zenbatekoaren itzulketa eskatu ahal izango du Ordenantza Fiskal honen 5.2 artikuluan aipatzen den hainbanaketa aplikatuta.

12. artikulua. Xedapen gehigarria

11/1989 Foru Arauan xedatutakoari jarraiki, zerga honi Zergen Foru Arau Orokorrak kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari buruz nahiz zerga urraketa eta zigorreki buruz jasotzen dituen arauak aplikatuko zaizkio.



ORIOKoudala

13. artikulua. Amaierako xedapena

Ordenantza eta bere eranskinak 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak; indarrean jarraituko dute horiek indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

14. artikulua. Xedapen indargabetzailea

Indargabeturik geratzen da aurreko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotak zehazteko oinarrizko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

ERANSKINA

I TARIFAK

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren uztailaren 5eko 14/1989 Foru Araua aldatzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erregimen Fiskalari buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, zerga 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da, ondoko tarifen arabera:

Euroak

A) Turismoak

9 zalditik beherakoak	34,45
9tik 11,99ra bitartekoak	77,70
12tik 13,99ra bitartekoak	120,00
14tik 15,99ra bitartekoak	178,00
16tik 19,99ra bitartekoak	235,00
20tik gorakoak	276,00

B) Autobusak

21 jarleku baino gutxiagokoak	183,80
21etik 50era bitartekoak	261,45
50etik gorakoak	327,70

C) Kamioiak



ORIOKOUDALA

Karga erabilgarria 1000 kg.tik behera dutenak	94,75
Karga erabilgarria 1.000 kg.tik 2.999ra bitartekoa dutenak	183,80
Karga erabilgarria 2.999 kg.tik 9.999ra bitartekoa dutenak	261,45
Karga erabilgarria 9.999 kg.tik gora dutenak	327,70

D) Traktoreak

16 zalditik beherakoak	39,95
16tik 25era bitartekoak	61,70
25etik gorakoak.....	183,80

E) Trakzio mekanikodun ibilgailuek atoiaren daramatzaten erremolkeak eta erdi erremolkeak:

Karga erabilgarria 1000 kg.tik behera eta 750 kg.tik gora dutenak.....	39,95
Karga erabilgarria 1.000 kg.tik 2.999ra bitartekoa dutenak	61,70
Karga erabilgarria 2.999 kg.tik gora dutenak	183,80

F) Bestelakoak

Ziklomotorrak	10,55
125 zentimetro kubikorainoko motozikletak	10,55
125etik 250ra bitarteko motozikletak	18,05
250etik 500era bitarteko motozikletak	35,85
500etik 1.000 bitarteko motozikletak	68,50
1.000tik gorako motozikletak	137,00

II. HOBARIAK

— Zerga kuotan 100eko 75eko hobaria izango dute, ondorengo baldintzetako bat betetzen duten ibilgailuek:

Motor elektrikodun ibilgailuak edo ibilgailu hibridoak (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), fabrikatik homologatuta datozenak eta elementu kutsagarri gutxiago botatzeko ibilgailu klase eta modelorako egokiak diren katalizatzaileak dituztenak.



ORIOKoudala

Fabrikatik dakarren homologazioaren arabera erregai modura gasa erabiltzen duten ibilgailuak, elementu kutsagarri gutxiago botatzeko ibilgailu klase eta modelorako egokiak diren katalizatzaileak dituztenak.

Hobari hau eskatu egin beharko da, eta Udalak ontzat eman eta gero, hurrengo bi ekitaldietan izango du eragina.

Hobarien gozamenerako beharrezkoa izango da aurrez Udalak hobari horiek aitortzea, eta eskaera egin den zergaldian izango dute eragina.

- Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzinatasuna dutenek %100eko hobaria izango dute zerga kuotan. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

ERANSKINA

<u>Eraikuntza, instalazio edo obra-mota</u>	<u>Karga-mota (%)</u>
a) Orioko Kasko Zahar edo Historikoaren mugen barnean egindako edozein eraikuntza, instalazio edo obra, irabazi asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek egina eta honako gehienezko perfilarekin: bi altuera eta kubiarta azpiko aprobetxamendua	% 2
b) Orioko Kasko Zahar edo Historikoaren mugen barnean egindako edozein eraikuntza instalazio edo obra, irabazi asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoek egina	% 4
c) Baserri edo baserrietako eranskinei buruzko edozein eraikuntza, instalazio edo obra.....	% 2,5
d) Sustapen publiko edo pribatuko gizarte laguntzako etxeen promozioarekin zerikusia duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra.....	% 2
e) Erregimen orokorreko Babes Ofizialeko etxebizitzaren promozioarekin zerikusia duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra.....	% 3
f) Edozein eraikuntza, instalazio edo obra, etxebizitza libreen promozioari edo pabilioi edo nabe industrialei dagokiena.....	% 5
g) Aurreko ataletan propio aipatu gabeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra	% 4



ORIOKUDALA

- h) Gutxienezko tarifa Alde Zaharreko eremu barruan.....36,95 euro
i) Gutxienezko tarifa gainerako udalerrian73,90 euro

Zergaz kanpo geratuko dira igogailua lehen aldiz jartzeari dagozkionak.

Mugikortasuna murriztuta duten pertsona ezinduei etxebizitza egokitzeko bideratuta dauden eraikuntza, instalazio eta obrak %80ko hobaria izango dute zerga kuotan.

% 90 arteko hobaria ezartzen da, zergaren kuotaren gainean, establezimendu komertzial eta industrial berriak irekitzeko egiten diren eraikuntza, instalazio edo obra guztietarako, baldin eta jarduera ekonomiko horretarako erabiliko den lokalaren azalera 140 metro koadrokoa edo txikiagoa bada.

2.- Udal domeinu publikoa pribatuki erabiltzeagatik edo horren aprobetxamendu berezia egiteagatik aplikatuko diren tasak:

2.1. Udal erabilera publikoko lurretan (errepide eta bestelako bide publikoak barne) zangak, lubakiak eta sundak irekitzea, hodiak eta bestelako instalazioak jarri eta konpontzeko. (Bide publikoan zoladura edo espaloia altxatzea ere barnean geratzen da).

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek dira:

m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko)1,74

2.2. Udalaren erabilera publikoko lurrak okupatzea, merkantziak, eraikuntza materialak, obra hondakinak, hesiak, puntelak, asnillak, aldamiok eta antzeko beste instalazio batzuk jarritz.

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek dira:

Euroak

- a) Lehen tarifa: Bide publikoa hesi, aldamiok edo beste edozein instalazioz okupatzea. m2ko (edo zatiko) eta eguneko.....0,34
- b) Bigarren tarifa: Bide publikoa merkantzia, hondakin eta eraikuntza materialez okupatzea. m2ko (edo zatiko) eta eguneko.....4,36
- c) Hirugarren tarifa: Bide publikoa zutabe, eustaga edo eusteko beste hainbat elementurekin okupatzea.
Elementuko eta hileko (edo zatiko).....12,94
- d) Laugarren tarifa: Eraikuntza garabiak jartzea. m2ko (edo zatiko) eta hileko (edo zatiko)14,56



- Bigarren tarifak aipatzen dituen aprobetxamenduen elementuren bat hesiz inguratutako espazioaren barnean instalatuta dagoenean, ez dira tarifa horiek likidatuko, baizik eta lehen tarifaren barneko hesien kontzeptu espezifikoari dagozkionak.
- Udal jabari publikoaren okupazioa Orioko kasko zahar edo historikoaren mugen barnean irabaziasmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek egiten dutenean, pertsona horiek ordaindu behar duten tasaren kopurua % 99an bonifikatuko da.
- Udal jabari publikoaren okupazioa Orioko kasko zahar edo historikoaren mugen barnean irabaziasmoarekin jotzen duten pertsona fisiko edo juridikoek egiten dutenean, pertsona horiek ordaindu behar duten tasaren kopurua % 50ean bonifikatuko da.
- Udal jabari publikoaren okupazioa Udalak hasieran emandako epea baino gehiago luzatzen bada, arrazoi jakinik gabe, tarifa aplikagarriak % 100 handituko dira..

2.3. Ibilgailuak sartzear espaloietan barrena eta aparkamendu mugaturako bide publikoan egindako erreserbetan barrena; ibilgailuak geratzea; edozein motatako merkantziak kargatu eta deskargatzea.

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek dira:

Euroak

- a) Lehenengo tarifa (Ibi iraunkor baimenduarekin):
- | | |
|--|-------|
| Bide publikoan tokia gordetzea | 72,62 |
| Garaje plazagatik | 9,17 |
| Familia bakarreko etxebizitzetako garajeak | 68,50 |
- b) Bigarren tarifa (ibi iraunkorrik gabe)
- | | |
|--------------------------------------|--------|
| 3 ibilgailu arteko garajeak | 45,68 |
| 4tik 10 ibilgailu artekoak | 91,82 |
| 11tik 30 ibilgailu artekoak | 136,94 |
| 30 ibilgailu baino gehiagokoak | 181,33 |
- c) Ibi iraunkorrik gabeko garajeek, gainera, beste kontzeptu hau ere ordainduko dute:
sarbideak espaloiarekin egiten duen lotunearen zabalerak hartzen dituen metro
linealak (edo zatiak) x (bider)
- | |
|-------|
| 10,51 |
|-------|
- d) Merkataritza-lokalak bide publikoan tokia gordetzea (ibi iraunkorrik gabe).....
- | |
|-------|
| 72,72 |
|-------|



ORIOKoudala

- Ibi iraunkorreko plakak eroste kostuan kobratuko dira.
- Bigarren tarifako ordutegia lanegunetan 08:00etatik 20:00etara izango da.

2.4. Edozein motatako udal bide publikoen hegalkina okupatzea elementu hauekin: eraikuntzako elementu itxiak, terrazak, begiratokiak, balkoiak, markesinak, toldoak, haizetakoak, eta antzeko beste instalazio batzuk, kalearen gainetik edo fatxadaren lerrotik ateratzen direnak.

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek dira:

	Euroak
1.- Toldoak. m2ko (edo zatiko) eta urteko (edo zatiko)	1,00
2.- Markesinak. m2ko (edo zatiko) eta urteko (edo zatiko).....	1,25

2.5. Linea elektrikoak; hodiak eta galeriak, elektrizitatea, ura, gasa edo bestelako isurkinak garraiatzeko; barnean hartuz: lineatarako zutoinak; kableak; palomillak; amarratze, banaketa eta erregistro kutxak; transformadoreak; errailak; baskulak; salmenta automatikorako aparailuak; edota antzeko elementuak, bide publikoetan edo udal domeinu publikoko lurretan ezartzen direnak.

Tasa hau jarraian aipatzen denarekin zuzenki lotuta dago:

Auzateria osoari edo horren zati garrantzitsu bati dagozkion hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeko bide publikoen lurzoru, zorupe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziengatik tasa aipatutako enpresek udal mugartean urtean eskuratzen duten fakturaziotik datozen diru-sarrera gordinen % 1,50ekoa izango da.

I. Tarifa hau aplikatzeko arauak

Ekitaldi bakoitzaren lehen lau hilabeteetan enpresek udal mugartearen barruan egindako hornidurengatik lortutako diru sarreraren aitorpena egingo dute, aurreko urtean lortutako diru sarrera gordinak xehetasun osoz azalduz.

Energia elektrikoa banatzen duten enpresei dagozkienez, “diru-sarrera gordintzat” hartuko dira, udalerrri barruan energia elektrikoa salduz lortzen dituzten diru-sarrerak, barne duelarik potentzia kontzeptua energiarena, energia erraktiboaren osagarrienak eta ordutegi diskriminazioenak, hala nola neurgailuen alogera eta hartune eta itsaspen eskubideenak. Salbuetsirik geratuko diren diru-



sarrera bakarrik BEZ eta fidantza izango dira, aplikagarria izango direlarik kontzeptu bananduak behe tentsio eta goi tentsioko zuzkidura guztiak.

Era berean, Elketzitate Konpainiako enplegatuei egiten zaizkien zuzkidurak ere barne izan beharko dira, zeinak udalerri barruko gainontzeko abonatuaren 2.0 tarifa orokorreko batez-besteko prezioan baloratuko baitira, potentzi kontzeptua ere gehituko zaielarik, eta hori guztia zuzkidura doan izanik ere.

Azkenik, udalerri barruko fakturaziotik argiteria publikoari dagokiona kenduko da, fakturatzeko denean, A.O. berariazko tarifari dagokionez, baina ez da deskontatuko beste tarifa orokorren bat fakturatzeko bada, bertan barne hartuta baitago tasaren balioa.

Aipatutako aitorpenarekin batera enpresaren kontabilitateko laburpena eta kasu bakoitzean Udal Administrazioak eskatuko dituen agiriak aurkeztu beharko dira.

Udal Administrazioak tasa honen zehaztapena edo behin-behineko kibraketa egingo du, hori egin ondoren 5 urteko epearen barruan ordaindu beharreko zenbatekoa zuzendu ahal izango delarik eta, epe hori iraganik, hala badagokio, behin-betikotzat joko da.

2.6. Udal erabilera publikoko lurak okupatzea, mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementuak erabiliz, irabazteko asmoa dagoenean.

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek dira:

Euroak

- | | |
|---|-------|
| 1.- Mahaiak, mahaitxoak, aulkiak, zoladurak, lorontziak, parasolak
edo antzeko instalazioak m2ko(edo zatiko)
eta urteko | 26,17 |
| 2.- Zabor eta materialak gordetzeko edukiontzia. Edukiontziko
eta eguneko (edo zatiko)..... | 6,19 |
| 3.- Makina gai-banatzailea metro karratuko eta urteko (edo zatiko)..... | 25,75 |

Orioko Udalak aukera izango du 1. ataleko tarifari % 100 arteko hobaria aplikatzeko, azpiegitura orokorreko obren exekuzioak udal erabilera publikoko lurren okupazioari zuzenean eragiten dionean.

Orioko Udalak aukera izango du 1. ataleko tarifari % 50eko hobaria aplikatzeko lurren okupazioa bakarrik asteburuetan egiten duten ostalaritzako establezimenduei.



ORIOKoudala

Kontuan izanda erabilera publikoko lur guztiak ez direla berdinak mahai, mahaitxo, aulki, zoladura, lorontzi, parasol edo antzeko instalazioekin okupatzeko, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera bi okupazio-eremu bereiziko dira:

A eremua: Anibarko Portua, Bikamiota eta kasko historikoa.

B eremua: Udalerriko gainerako eremu guztiak, AIU3 Hondartza barne.

Honako berezitasunak aplikatuko dira:

- A eremuan kokatutako establezimendu publikoei %50eko hobaria aplikatuko zaie establezimenduak irekitzeko baimenak emateko tasaren tarifetan.

- A eta B eremuetan kokatuta dauden establezimendu publikoei %3ko gehikuntza aplikatuko zaie, orokorrean. Nolanahi ere, mahai, mahitxo, aulki eta abarrak beren establezimenduaren barruan jasotzen ez dituzten establezimenduetako titularrei %5eko gehikuntza aplikatuko zaie, kokapena kontuan izan gabe. Hau da, aplikatuko zaien tarifa honako hau izango da: 26,68 € metro karratuko edo frakzioko eta urteko.

2.7. Bide publikoan kioskoak jartzea.

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek dira:

m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko)	1,63
ONCE edo antzerako kioskoak jartzeagatik.....	292,00 €/urteko

2.8. Postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizun guneak, feriak edo jolas lekuak jartzea udal erabilera publikoko lurretan, barnean hartuz, baita ere: kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema filmaketak.

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek dira:

	Euroak
1.- Taberna, kafetegi eta antzekoak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko)	2,51
2.- Txurrotegi, txokolatetegi eta antzekoak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko)	2,51



ORIOKoudala

- 3.- Pastelak, gozokiak, fruitu lehorrak, patata frijituak, bisuteria, jostailuak, liburuak eta abar saltzeko txosnak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko).....1,63
- 4.- Loreak, gaztainak eta izozkiak saltzeko txosnak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko)1,63
- 5.- Animaliak, zigiluak, txanponak eta antzekoak saltzeko txosnak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko) 1,63
- 6.- Tiroko txosnak eta bestelako jokoak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko).....2,51
- 7.- Tonbolak, zozketak, salmenta azkarrak eta antzekoak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko)2,51
- 8.- Ziboak, tresna hegalaria, kalesa txikiak, zaldiko-maldikoak, bumperrak eta, oro har, mugitzen diren era guztietako aparatuak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko).....2,51
- 9.- Auto-txoke pistak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko)2,51
- 10.- Ikuskizun eta antzerkiak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko)2,51
- 11.- Zirkoak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko).....0,17
- 12.- Aurreko koefiziente horiek % 50eko murrizketa izango dute izaera orokorrekoak ez diren feria edo ospakizunak direnean edo jaietako esparruan sartzen ez diren instalazioak direnean.
- 13.- Orioko Udalak 6. eta 11. arteko tarifei, biak barne, % 60ko hobaria ezartzeko aukera izango du izaera orokorreko feria eta jaialdietan edo ferialeku barruko instalazioetan, baldin eta, aldez aurretik Udalarekin adosten bada instalazio horien erabiltzaileek tarifa murriztuak izango dituztela.
- 14.- Azokako postuak. m2ko (edo zatiko) eta eguneko (edo zatiko).....1,51
- 15.- Telesail edota antzeko aktibitate baten grabaketa edo filmaketa.
Grabaketa edo filmaketatik eguneko292,00



ORIOKUDALA

2.9. Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerrietako kaleetan aparkatzea, horretarako erabakitako zonen barruan eta muga jakin batzuekin.

Aplikatu beharreko tarifak honako hauek dira:

Hondartzako aparkalekua (turismoak):

Maiatzaren 1etik irailaren 30era, biak barne,
astelehenetik igandera, 10etatik 20 orduetara.....1,20 €/orduko edo zatiko

Orioko udaltzainek trakzio mekanikodun ibilgailuak bide publikoan gaizki aparkatzeagatik jarritako isunak deuseztatzeagatik, **15 euro isun bakoitzeko.**

Aian erroldatuta daudenek, Orion jaioak izan baina herritik kanpo erroldatuta daudenek eta herritik kanpo erroldatuta dauden baina Orion lan egiten dutenek aukera izango dute Udalaren eranskina eskuratzeko, denboraldiko **40 euro** ordainduta, eta, hartara, beren ibilgailua aparkatu ahal izateko Orioko Antilla hondartzako eta inguruko aparkalekuetan udako denboraldian. Eranskailua erosteko, honako agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- Aian erroldatuta daudenak: Errolda-agiria, ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ordainketa egin izana kreditatzen duen agiria.
- Orion jaioak izan baina herritik kanpo erroldatuta daudenak: jaiotzagiri literala, ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ordainketa egin izana kreditatzen duen agiria.
- Oriotik kanpo erroldatuta dauden baina herrian lan egiten dutenak: lan-kontratuaren kopia konpultsatua, ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ordainketa egin izana kreditatzen duen agiria..

2.10. Bide publikoko lurzoru, lurrazpia eta hegalkinen erabilpen pribatua eta aprobetxamendu berezia.

Baimena eskatzen duenak, bideok erabiltzen hasi aurretik, alde batetik tasa ordaindu eta bestetik fidantza bat ordaindu beharko du, bideok erabiltzeagatik eragin litzaketan kalteengatik. Tasaren zenbatekoa honela kalkulatu da:

0,62 euro estereo eta kilometroko (edo zatiko).

Fidantza hau dirutan edo eragin litezkeen kalteengatik erantzungo lukeen banketxeko bermez egin ahal izango da.

Fidantzaren zenbatekoa hurrengo eskala honen arabera zehaztuko da:



ORIOKoudala

Euro

1 km arte 1,39

1 km-tik 2 km arte 2,01

2 km-tik gora 2,32

Mendi baterako ordaindutako fidantza ezin izango da beste baterako erabili, nahiz eta egurra mendi berberetik atera.

Fidantza itzultzeko prozeduraren erantzuna berau eskatu eta hilabete orduko egingo da. Epe horren ondoren erantzunik izan ez bada, nolabait balioztatuko diren ondorioak izango ditu

2.11. KUTXAZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDE PUBLIKOTIK IRISMENA DUTEN SALMENTA-MAKINAK INSTALATZEKO ETA FUNTZIONAMENDUAN EDUKITZEKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.

1. artikulua.- OINARRIA ETA IZAERA.

Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluek ematen dizkioten ahalmenak erabiliz, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikulua ezarritakoarekin eta Tokiko Ogasunak Arautzen dituen Legearen eraberritutako testua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 20. artikuluan eta 15etik 19ra bitarteko artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, Orioko Udalak tasa ezartzen du kutxazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinak instalatu eta funtzionamenduan edukitzeko.

2. artikulua.- ZERGAGAIA

1.- Tasa honen zergagaia honako kasuetan egiten den udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia da:

- a) Fatxadetan finantza erakundeek edo gordailu-erakundeek kutxazain automatikoak instalatu eta funtzionamenduan edukitzea, erabiltzaileak bide publikotik erabili behar dituenak.
- b) Produktuen salmenta automatikorako makinak instalatzea edo funtzionamenduan edukitzea, irismena bide publikotik dutenak.

2.- Tasa ordaintzeko betebeharra baimen administratiboa ematearekin batera sortzen da edo, bestela, aprobetxamendua egiten denetik, baimenik gabe egiten bada.

3. artikulua.- SUBJEKTU PASIBOAK.

